

AURKEZPENA

Gu Ibone Aresti, Garazi Alba, Gorka Gomez, Oier Jimenez eta Ander Jimenez gara. Leioako IES Jose Miguel Barandiaran institutuan ikasten dugu eta Batxillergoko bigarren maila egiten gaude.

Zalantzarik gabe, azken urteen gizarteak ingurumenarekiko daukan kezka aregotu da. Hortaz, guztiz premiazkoa da etorkizun iraunkor baterantz bideratzen gaituen bidea irekitzea.

Hari beretik, ehungintza naturari kalte gehien egiten dion industrietako bat da.

NBERen arabera, sektore honek munduko hondakin-uren % 20 eta karbono-isurketa globalen % 10 ekoizten ditu. Hori erakusteko, praka bakeroak egiteko batez beste 7500 litro ur gastatzen dira. Modan erabiltzen diren ehun-zuntzak kotoia, poliesterra eta nylon dira batez ere. Gainera, konposatu ez-biodegradagarriak dira, eta jantzi horiek garbitzeak zuntzak askatzea eragiten du, itsasora iristen diren mikroplastikoak sortuz.



Argudio guzti hauen aurrean, gure taldeak beste dendetatik nabarmentzen den arropa denda bat sortzea proposatzen du, Ekologia Modernoa (KLGK MDRN) izenekoa. Ekoizpen-prozesu kutsagarriak saihesteko ez ditugu tela berririk ekoiztuko. Jendeak erabiltzen ez duen arropa dendara ekarriko du eta guk erosiko dugu. Arropa hau desmuntatuko dugu eta garbitu eta gero, sortutako tela zati berriez baliotuko gara arropa berria, oihalezko poltsak, mantak, izarak etab. egiteko. Ehun gehiago behar ezker, GOTSek (Global Organic Textile Standard; itzulita, Ehun Organikoen Munduko Araua) onartutako oihalak erabiliko dira. GOTS estandarrak oihalak zuntz organiko eginda daudela ziurtatzen du. Gutxienez zuntz organikoen %70arekin fabrikatutako ehunek bakarrik lor dezakete ziurtapen mota hori. Horren aritiko,



ehunak josteko kotoi organikoko hariak, biesak, zintak eta botoiak erabiliko ditugu.

Egiten ditugun produktu berriak gure denda fisikoan eta gure Instagram kontu ofizialaren bitartez salduko ditugu. Era berean, sortuko dugun lokala guztiz jasangarria izango da, teilatuan ditugun eguzki-panelek behar dugun energia hornituko dutelako. Energia honetaz baliatuko gara dendaren argiztapena eta josteko makinen funtzionamendua bermatzeko.